

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Kubako bi pertika-jauzilarik Nafarroan prestatuko dute Daeguko (Hego Korea) Munduko Atletismo Txapelketa

Torres kontseilaria taldeko kideekin bildu da

Viernes, 05 de agosto de 2011

Bi pertika-jauzilarik eta lau entrenatzailek osatutako Kubako atletismo selekzioaren ordezkari-talde bat Iruñeko Larrabide zelaian entrenatzen ari da egunotan, Daegun (Hego Korea), 2011ko abuztuaren 27 eta irailaren 4 artean izango den Munduko Txapelketarako prestatzeko.

Taldea, gorako jauzilaria eta 2,45 metroko markarekin munduko errekorrena den Javier Sotomayor buru zela, Elena Torres Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilariarekin eta Miguel Pozueta bildu dira, gaur goizean, Iruñeko Larrabide zelaian.

Taldea asteazkenean, abuztuak 3, heldu zen Nafarroara, Espainiako beste herri batzuetan ere egonda. Foru Komunitateak prestaketarekin bukatzeko asmoa dute, eta Nafarroako zenbait teknikarirekin ere bilduko dira.

Hori horrela, Nafarroako Atletismo Federazioak jarduera-programa bat egin du, eta besteak beste, atletek eta entrenatzaileek entrenamenduak ikusteko aukera izango dute; marka-kontrol bat antolatuko dute Nafarroako ordezkariaren batekin; lanari buruzko hitzaldiak egingo dituzte eta Kubako eta Nafarroako teknikariak bilduko dira.

Nafarroako Kirol Institutuak aukera moduan ikusten ekimena, Kubaren eta Nafarroaren artean giza eta kirol harremanak sustatzeko, izan ere, beste modalitate batzuetan, beisbolean eta pilotan esaterako, harreman horiek duela zenbait urte dituzte.

Kubako taldea

Bi atletek -Lázaro Borges (1986) eta Yadisley Silva (1987), munduko rankingaren lehen postuetan dauden pertika-jauzilariak, 5,72 eta 4,66 metroko markekin hurrenez hurren- eta lau entrenatzailek -Javier Sotomayor, Mayra Vila, Alexander Navas eta Eloine Kner- osatuko dute.

Gogoratzekoa da Javier Sotomayorek, 44 urtekoak, gorako jauziko munduko errekorra duela gaur egun, 2,45 metroko markarekin. Bartzelonan (1992) txapeldun olinpikoa izan zen, eta txapeldunordea Sidney (2000). Horrez gain, munduko txapelduna izan zen 1993. eta 1997. urteetan eta txapeldunordea 1991. eta 1995. urteetan. Bestalde, Kirolen Asturiasko Printzea saria irabazi zuen 1993. urtean.